

## **LAU LETRATXO**

**Lau letratxo elkarren ondoan:**

**akronimoa da, brabo!**

**Eta atzean bertso-eskola bat...**

**parkatu, askoz gehiago!**

**A, L, B eta ondoan E,**

**ALBE lez ezagunago,**

**bertsozale bik sortu zutena,**

**gaur baino askoz lehenago.**

**Laurogeian sortu zuten eta**

**ez ote dugu arraro**

**hainbeste urtez jardun izana**

**bertsogintzaren abaro?**

**Sekretutxo bat badauka, baina,**

**irauteak aroz aro,**

**ALBEn ahotsak ugari dira,**

**bihotza bakarra dago!**

Doinua: Martxa baten lehen notak. Mikel Laboa

# MENDIBILE

*Doinua: Aditu laguna itsasoak*

Peru Vidal Gurrutxaga

Aztertu ditut web orri batzuk,  
hainbat entziklopedia,  
lagun zaharrekin elkarrizketak  
eta nire memoria,  
Mendibileko istorioak  
eta bere historia  
jakin nahiean noiz lortu zuen  
jauregi kategoria.

Mila zazpiehun urte aldean  
egin zen etxe berria  
bi familia bizi zitezen  
zuen berezko neurria  
eta titulu bat lortu zuen  
dena nahiko deigarria  
bi arkurekin Bizkaian egin  
zen lehenengo baserria.

Mendibilek bi etxebizitza  
zituen bere barruan,  
obra bat egin zen hogeigarren  
mende erdi inguruan  
etxebizitzak hirukoiztea  
zuen jabeak buruan  
bi izatetik sei izatera  
pasatu ziren orduan.

Ta hogeigarren mendean ere  
aurrerantza zuen segi  
hutsik geratu zen baserria,  
hutsik eta tristeegi  
baina orduan argi izpi bat  
nonbaitetik zen ageri  
bizitasuna heldu zitzaion  
berriro Mendibileri.

Egutegian aurrera joanda  
laurogeitahamazazpiko  
apirilaren hogeitazortzi  
eguna ze historiko  
herri hontako neska mutilek  
ez zuten jausten utziko  
gaztetasuna eman zioten  
Mendibileri betiko.

Kolektiboen orduko kezka  
zenez ezin elkartzea  
beharizanei erreparatuz  
espazio bat sortzea  
hausnartu eta erabaki zen  
etxe hau okupatzea  
eta horrela sortu zen hemen  
Mendibile Gaztetxea.

Akelarrea, sagardo egun,  
sortzen, bizitzen, gozaten,  
antzerki, tailer, liburutegi,,  
ikasten, eztabaidatzen,  
aldarrikapen, militantzia,  
esperientziak batzen,  
hiru urteko ibilbidea  
zeinen ederra izan zen.

Bi milagarren urtearekin  
ekainak hogeitazazpi  
hustu zituzten gaztetxearen  
erdigune, goi ta azpi  
hau zertarako zen jakiteko  
iritzi bat ez da aski  
baina uste dut negozioa  
zegoela seguraski.

Jatetxe, business center, egoitza  
eta txakolindegia  
ondasun eta berritasuna  
batzeko katebegia  
hau da hirurehun urteko etxe  
zahar-berrituegia  
egun Bizkaiko txakolinaren  
etxe eta jauregia.

Peru Vidal Gurrutxaga

## ONUS PROBANDI

*Doinua: Iparragirre abila dela*

German Kortabarría Igartua eta Xabier Sainz de la Maza Bilbao

### GERMAN KORTABARRIA:

Xabi lagunak guaxap mezua  
goizeko lehen ordutan:  
bertso papertxo bat atontzeko  
ea gogorik ba neukan;  
gaia aurkitu ezinda,  
kasik etsi eginda,  
ez geratzeko damutan  
esku artean neukan txostena  
jarriko dut hitz neurtutan.

Emakumeen lan baldintzena  
ez da, inolaz, kontu arina;  
horri buruzko hainbat sententzi(a)z  
ari da nire iruzkina:  
epai txar asko(re)n truke  
inoiz asmatzen dute,  
(e)ta ezarri dute dotrina,  
arautegitik behar dela eraman  
lanera tratu berdina.

Emakume bat, bi gizona, bi  
lan-maila bera medio,  
soldata bera hirurentzako  
da bidezko ondorio;  
baina arrek gainera,  
propina sakelera;  
bereizkeria dario!  
Hanka tarteko zeraren zerak  
nonbait asko du balio.

Jokabidea zilegitzeko  
ugazabek mila zidor,  
berez auzi-jartzaileak luke  
iruzurraren froga zor;  
intentzioa, baina,  
da frogatu ezina,  
eta epaileek, ulerkor:  
auzi hauetan "onus probandi"  
nagusien bizkar betor.

"Onus probandi" delako hori  
jarri ondoren hankaz gora,  
bereizketaren fundamentua  
beharko da zinez froga:  
arrazoizko motibo,.  
zuzen (e)ta objektibo,  
bestela isiltzea hoba,  
(e)ta behingoz jarri maila berean  
bai señor (e)ta bai señora.

Legetan eskas, bertsotan trakets,  
honaino nire rondoa,  
ustekabeen aterea zait  
frikikeria mandoa;  
bertsoa eta toga  
inork nahi badu aproba  
dantzatzen jarri tangoa,  
(e) ta ALBEren baitan sortuko dugu  
Aranzadi komandoa!

### XABIER SAINZ DE LA MAZA:

Nabaritzen da, zure lekua  
Zela behin sindikatua,  
ta Aranzadi komando horrek  
Behar du abokatua.  
In dubio pro-operaria  
Segiko dut haria  
Nahiz ta den konplikatua.  
Ze guk gizonak hau aztertzea  
Ez dakit den hain justua.

Berdintasuna eskuratzeko  
Oraindik ez gaude ongi,  
Eta horretaz aprobetxatzen  
dira sarri hainbat "mangi".  
Nahiz ta-egon agerian,  
Bada gure bidian  
Hainbeste oztopo handi.  
Eskerrak orain, emakumeen  
Alde da "onus probandi".

Baina genero indarkerian  
Zaila dute frogatzea;  
"Deabruaren frogabidea"  
Deitzen da hori lortzea.  
Etxe barruan, traba,  
Lekukoa falta da.  
Deabruaren etxea.  
Behar genuke deabru horiek  
gehiago kondenatzea.  
*(jarraitzen du)*

Eta protesta egin ezker  
Zer gertatzen da ba? Hara:  
Polizi batzuk joaten dira  
Ematera porra-kada.  
Nahiz ta bideoz grabatu,  
Nahiz ta ahal den frogatu,  
Ez doaz epaiketara.  
Plaka daukaten horientzako  
justizia ezberdina da.

Zuk sei bertso ta nik ordea bost  
Bertso sorta osatzeko.  
Guztira-hamaika, Albe eguna  
Behar den bezala-alaitzeko!  
Hau al da egokia?  
Eta zein da tokia  
Sorta hau iragartzeko?  
German mesedez eman baimena  
Zapatuan kantatzeko

**GERMAN KORTABARRIA:**

Noski, baduzu nire frikada  
erabiltzeko baimena,  
baina beldur naiz izango ote den  
hainbat hitzekin problema:  
jakin gabe latinik  
entenditu ezinik  
geratzea denez pena  
"onus probandi"-n ordez jartzea  
"the burden of proof" da onena.

## SANTIAU TA SANTANA

1

Santiau pasau de ta  
santana geubian  
mutil bi egon sasen  
morena  
bentana batian.

2

Mutilok egon sasen  
guzurre kontetan  
aitxitxe koitxedue  
morena  
taluak erretan.

3

Amama koitxedia  
gortatik negarrez  
katu demoninoa  
morena  
taloa dandarrez

4

Masuzte koloreko  
begitxu baltzokaz  
ondo engaina in nona  
morena  
berba labanokaz.

5

Harako zeuk gure ta  
neuk gure nendunian  
Berba labanik asko  
morena  
zendula minian.

6

Zeuk bere joxepa ta  
neuk bere joxe ba  
ontxe konta biar kuz  
morena  
hamalau pezeta.